



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

David Alegret tenorak eta Rubén Fdez. Aguirre pianistak omenaldia egingo diote Josep Carner-i, poeta katalanen printzeari

- Errezitalean Joan Magrané-ren *Cantícel* piezaren erabateko estreinaldia izango dugu, zeinaren bidez musika jarriko baitio Carnerren izen bereko poema hain ezagunari.
- Emanaldia asteartean izango da, ekainaren 13an, 19:30ean, eta LIED ARRIAGAN zikloaren denboraldi honetako azken hitzordua izango da.

Bilbo, 2023ko ekainaren 8a.- Arriaga Antzokiko foyerrean, LIED ARRIAGAN zikloaren denboraldiko seigarren eta azken hitzordua izango dugu datorren asteartean, ekainaren 13an, 19:30ean. Ziklo honek piano eta ahots formatuko emanaldiak hartzen ditu barne, eta datorren denboraldian itzuliko da proposamen gehiagorekin.

Puntu eta jarrai izango den kontzertuan, **David Alegret** tenor katalan ospetsua izango dugu, **Rubén Fdez. Aguirre** pianistarekin batera. Elkarrekin, omenaldia egingo diote **Josep Carner** ospetsuari, zeina poeta katalanen printzea bezala baitzen ezaguna; izan ere, funtsezko egilea izan zen bere garaiko musikari askorentzat (Toldrà, Serra, Monpou), baina erreferentziala da ere gaur egungo konpositoreentzat.

Programa honetan, Alegretrek eta Fdez. Aguirrek 120 urteko bidaia proposatzen dute, Modernisme català mugimenduaren sorreratik gaur egunera arte. Gainera, IBS Classical diskoetxearekin kaleratu duten **Carneriana** izeneko CD bikoitza aurkeztuko dute Bilbon. Josep Carnerren olerkiei buruzko 50 abesti biltzen dituen proiektu handi bat da, kritika bikainak jaso dituena eta El Temps de les Arts 2022 sari prestigiotsua lortu duena Musika Klasikoaren kategorian.

Erabateko estreinaldia

Errezitalean, Arriagan bertan, **Joan Magrané** konpositorea ere izango dugu. Egile katalanak Musika Konposizioako Reina Sofia saria irabazi zuen 2013an, eta musika berria idatzi du *Cantícel* obrarako. Izenburua bat dator Josep Carnerren poema ezagunenetako batenarekin. Izan ere, Alegretrek eta Fdez. Aguirrek hainbat egilek poema horri eskainitako zenbait konposizio interpretatuko dituzte. Zehazki, **Ricard Lamote de Grignon**, **Eduard Toldrà**, **Antoni Massana**, **Joaquín Rodrigo** eta **Narcís Bonet** musikagileek egindako *Cantícelen* interpretazioak entzun ahalko ditugu. Horiez gain, izen bereko seigarren obra bat gehituko zaio, Joan Magrané-rena, zeina lehen aldiz joko baita zuzenean hilaren 13an, asteartean, Arriaga Antzokiko foyerrean, erabateko estreinaldian.

Egile gehiago programan

Carneriana proiektuak kontzertuaren bigarren zatia hartuko du. Baina David Alegretrek eta Rubén Fdez. Aguirrek, errezitalaren lehen zatian, beste egile katalan batzuen

piezak interpretatuz osatuko dute programa. Hain zuzen ere, entzuleek Albenizen “Seis baladas italianas” zikloko zenbait konposizioen interpretazioaz gozatuko dute eta, ondoren, 1922an argitaratutako Tomás Garcésen “*Vint cançons*” liburuko bost poematik igaroko dira.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 15 euro (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus